



Espediente zk./Nº expediente: 2025SDBD0042 **Erreg. data/Fecha reg:** **Erreg. zk. / Nº registro:** 000000
Gaia/Asunto: 10.4. DIRULAGUNTZA LERROA: LAGUNDUTAKO PEDALEI ERAGITEKO TXIRRINDA
ELEKTRIKOAK EROSTEKO DIRULAGUNTZAK EMATEA. 2026 URTEA. LINEA DE SUBVENCION 10.4:
CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA LA ADQUISICION DE BICICLETAS ELECTRICAS DE
PEDALEO ASISTIDO. AÑO 2026.
Eskatzailea/Solicitante: ERRETERIAKO UDALA **NAN(IFK)/DNI(NIF):** P2007200E
Kokalekua/Emplazamiento: ERRETERIA

**ERANSKINA: 10.4. DIRULAGUNTZA LERROA: LAGUNDUTAKO PEDALEI ERAGITEKO TXIRRINDA
ELEKTRIKOAK EROSTEKO DIRULAGUNTZAK EMATEA. OINARRI ESPEZIFIKOAK (2026).**

ANEXO: LINEA DE SUBVENCION 10.4: CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA LA ADQUISICION DE
BICICLETAS ELECTRICAS DE PEDALEO ASISTIDO. BASES ESPECIFICAS (2026).

1.- Dirulaguntzaren xedea

Dirulaguntzen lerro honen xedea da Errenteriako udalerrian lagundutako pedalei eragiteko txirrinda elektrikoak erosteko udal-laguntza ekonomikoen kudeaketa arautzea.

Udalak, indarrean dauden Errenteriako Iraunkortasunerako Ekintza-Plana (Tokiko Agenda 2030) eta Klima eta Energia Iraunkorrerako Ekintza Planaren (KEIEP) helburuekin bat etorritik, behar den bultzada publikoaren bidez, honako helburu hauek gauzatzen laguntzen du: gaur egungo krisi klimatikoaren kudeaketa, mugikortasunaren eragina murriztea eta energiaren kontsumoan eraginkortasuna areagotzen, energia sistema lehiakorrago, seguruago eta iraunkorrago lortzen, ingurumen eragina gutxitzen, kontsumitzeko energia gutxiago erabiltzen eta kanpoko baliabideen mendeotasuna murrizten.

Oinarri espezifiko hauen xedea da Errenteriako Udaleko Ingurumen eta Iraunkortasun azpisaileko dirulaguntzak lehiakortasun jarraitua eta banakako ebaluazioa bidez emateko arauak ezartzea.

1.- Objeto de la subvención

La presente línea de subvención tiene por objeto regular la concesión de ayudas económicas municipales para la adquisición de bicicletas eléctricas de pedaleo asistido en el municipio de Errenteria.

El Ayuntamiento, de conformidad con los objetivos de los vigentes Planes de Acción para la Sostenibilidad (Agenda Local 2030) y para el Klima y la Energía Sostenible de Errenteria (PACES), tiene como misión contribuir, mediante el necesario impulso público, a la gestión de la crisis climática actual, a disminuir las afecciones de la movilidad y a aumentar la eficiencia en el consumo de energía y, con ello a la consecución de un sistema energético más competitivo, sostenible y seguro, al disminuir el impacto ambiental, requerir menos energía para el consumo o la producción y reducir la dependencia de recursos energéticos externos.

El objeto de las presentes bases específicas es la regulación de la concesión mediante concurrencia sucesiva y evaluación individualizada de las subvenciones de la subárea de Medio Ambiente y Sostenibilidad del Ayuntamiento de Errenteria.



2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehienezko kopurua

Deialdi honetan dirulaguntzetara bideratuko den partidaren zenbateko guztia 10.000 € dira, 2026ko aurrekontukoaren partida honen kontura:

1.0520.480.03.172.00 2026

Gehieneko zenbateko hori zenbatetsia da, emakida ebazteko unean kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean baitago. Kreditu hori deialdi hau onartu eta hurrengo aurrekontu-ekitaldian izango da.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak inoiz ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez bakarrean, ezta aldi berean beste dirulaguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin ere.

3.- Eremua

Dirulaguntza hauen oinarrien aplikazioa Errenteriako udalerriko lurralde osoari zabalduko da.

4.- Onuradunak

Onuradunak izan daitezke Errenteriako udalerrian erroldatutako pertsona fisikoak, dagokion eskabidea oinarri hauen arabera bideratzen dutelarik.

5.- Dirulaguntza jaso dezaketen jarduketak

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak honakoak dira:

- Errenteriako udalerrian lagundutako pedalei eragiteko bizikleta elektrikoak erostea.

2.- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones

El importe total de la partida destinada a la presente subvención es de 10.000 €, con cargo a la partida presupuestaria del 2026 siguiente:

1.0520.480.03.172.00 2026

Esta cuantía total máxima tiene carácter estimado, puesto que está condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de resolución de la concesión, que tendrá lugar en el ejercicio presupuestario siguiente al de la aprobación de esta convocatoria.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la acción subvencionada.

3.- Ámbito

El ámbito de aplicación de las presentes bases se corresponde a la totalidad del territorio municipal de Errenteria.

4.- Personas beneficiarias

Podrán ser beneficiarias las personas físicas censadas en el término municipal de Errenteria que formalicen la correspondiente solicitud conforme a las presentes bases.

5.- Actuaciones objeto de subvención

Las actuaciones subvencionables son

- La adquisición de bicicletas eléctricas de pedaleo asistido en el municipio de Errenteria.



Kostu lagungarriaren barruan sartuko ez diren jarduerak:

No se considerará como coste subvencionables:

- Fakturatutako ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeko ordaindu den BEZa, eta, oro har, zergak.
- Inbertsioaren ondorioz eragindako finantza-gastuak.
- Eta, orokorrean, behar bezala zehaztu eta zehaztu gabeko kostu guztiak, eta ondorioz, era zuzenean identifikatzea ezinezkoak izango direnak, laguntza programa honetan aurreikusten diren jardueren inbertsioen helburuak lortzeari begira.
- El IVA satisfecho por la adquisición de bienes o servicios facturados y, en general, cualquier tributo.
- Los gastos financieros consecuencia de la inversión.
- Y, en general, todos aquellos costes que no estén claramente definidos y que no puedan identificarse de forma directa para el logro de los objetivos previstos por las inversiones en actuaciones contempladas en este programa de ayudas.

5.1. Dirulaguntza jaso dezaketen jarduketan baldintza orokorrak:

5.1. Requisitos generales de las actuaciones subvencionables:

- Bizikleta elektrikoek dagokien homologazioa izango dute Europar Batasunean, eta ibilgailu motordunei buruzko legeria eta baldintza teknikoak eta segurtasunekoak bete beharko dituzte.
- Ez dira diruz lagunduko 2.500 eurotik gorako kostua (BEZik gabe) duten bizikletak.
- Laguntza-lerro hau partikularrentzat baino ez da, eta espreski baztertuta geratzen dira erakundeak eta autonomoak.
- Laguntza-lerro honetatik kanpo geratzen dira gidariak pedalei eragin gabe azeleragailuen bidez edo edozein eragingailuren bidez funtziona dezaketen bizikleten antzeko ezaugarriak dituzten ibilgailuak.
- Udalari, bere eginkizunetan diharduela, deialdi honen kontura jasotako laguntzei buruz eskatzen dion informazioa ematea.
- Las bicicletas eléctricas poseerán la correspondiente homologación en la Unión Europea, debiendo cumplir la legislación sobre vehículos a motor y los requisitos técnicos y de seguridad.
- No serán objeto de subvención las bicicletas cuyo coste supere los 2.500 € (IVA no incluido).
- Esta línea de ayudas es exclusiva para particulares, y quedan excluidas explícitamente las organizaciones y los autónomos.
- Quedan excluidos de esta línea de ayudas los vehículos de similares características a las bicicletas capaces de funcionar sin pedaleo por parte del conductor, por medio de aceleradores o cualquier tipo de accionamiento.
- Facilitar al Ayuntamiento la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las ayudas recibidas con cargo a esta convocatoria.



5.2. Epeen baldintzak:

- Bizikletaren erosketaren deialdia argitaratu ondoren egin behar da, eta beti ere 2026ko urriaren 31a baino lehen.

5.3. Gutxienezko baldintza teknikoak:

1. Bizikletek Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrean zirkulatzeko eskatzen diren elementuak izan beharko dituzte, argi, meteorologia edo ingurumen baldintzak edozein direla ere:

- Balaztatze sistema egokia, aurreko eta atzeko gurpilen gainean jarduten duena
- Txirrina, beste soinu-aparatu bat erabiltzea debekatuz.

2. Gainera, gauez, «túnel» seinalearekin seinaleztaturako bide-zatietan zirkulatzeko edo ikuspenera nabarmen gutxitzen duten meteorologia- edo ingurumen-baldintzak daudenean zirkulatzeko, zirkloek honako hauek izan beharko dituzte:

- Aurreko eta atzeko posizio-argia
- Atereko eta alboko katadioptriko ez-triangularrak
- Katadioptrikoak pedaletan

UNE-EN 15194:2018 «Laguntza elektrikodun zirkloak. EPAC bizikletak» izeneko araua beteko da:

- 250 W-tik beherako potentzia duen motor elektrikoa, gidariaren gihar-ahaleginari laguntzeko, eta honako kasu hauetan asistentzia etengo da:
 - Gidariak utzi egiten dio pedalei eragiteari
 - 25 km/h-tik gorako abiadura
- Li-ion bateria ≥ 248 Wh
- Argi aurrekoa/atzealdekoa, aparkaleku-oinarria, babes-karela,...

6.- Dirulaguntzaren zenbatekoa

5.2. Requisitos de plazos:

- La compra de la bicicleta debe realizarse con posterioridad a la publicación de la convocatoria y antes del 31 de octubre de 2026.

5.3. Requisitos técnicos mínimos:

1. Las bicicletas deberán estar equipadas con los elementos exigidos en el Reglamento General de Vehículos para circular cualesquiera sean las condiciones de luz, meteorológicas o ambientales:

- Un sistema adecuado de frenado que actúe sobre las ruedas delanteras y traseras
- Un timbre, prohibiéndose el empleo de otro aparato acústico distinto de aquél

2. Además, para circular de noche, por tramos de vías señalizados con la señal de «túnel» o cuando existan condiciones meteorológicas o ambientales que disminuyan sensiblemente la visibilidad, los ciclos deberán disponer de:

- Luz de posición delantera y trasera
- Catadióptricos traseros y laterales no triangulares
- Catadióptricos en los pedales

3. Se cumplirá la norma UNE-EN 15194: 2018 "Ciclos con asistencia eléctrica. Bicicletas EPAC":

- Motor eléctrico de potencia no superior a 250 W, como ayuda al esfuerzo muscular del conductor, cesando su asistencia cuando:
 - El conductor deja de pedalear
 - La velocidad supera los 25 km/h
- Batería Li-ion ≥ 248 Wh
- Luces delantera/trasera, pata de cabra, guardabarros,...

6.- Cuantía de la subvención



Bizikletak erosteko laguntzaren zenbateko osoa prezioaren %20ra artekoa izango da gehienez (erosketa-prezioa BEZaren zerga baino lehen), 300,00 euroko mugarekin. Gazte-txartela aurkeztuz gero, kasu horretan muga 400,00 eurokoa izango baita.

Onuradun bakoitzak behin bakarrik lortu ahal izango du dirulaguntza eta bizikleta bakarra erosteko.

7.- Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskatzaileek Errenteriako Udalak 2026 urtean dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorren seigarren oinarrian adierazitako dokumentazioaz gain, ondorengo ere aurkeztu behar dute eskaerarekin batera:

- Beste dirulaguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.
- Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste dirulaguntzei buruzko ebazpen positiboen kopia justifikazioaren egunean.

Errenteriako Udalak , NISAE datuen bitartekaritza plataforma bidez, deialdian parte hartzeko ondoko datuak egiaztatuko ditu. Aurka eginez gero, deialdian eskatutako ziurtagiriak edo tituluak aurkeztu beharko ditu:

- Poliziaren Zuzendaritza Nagusia – Nortasun-datuak kontsultatzea eta egiaztatzea.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra -Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta

La cuantía total de la ayuda para la adquisición de bicicletas será como máximo hasta el 20% del precio (precio de adquisición antes del impuesto del (IVA), con un límite de 300,00 euros, excepto en el caso de justificación de la edad presentando la gazte-txartela, en cuyo caso el límite será de 400,00 €.

Cada persona beneficiaria sólo podrá obtener subvención una vez y para la compra de una sola bicicleta.

7.- Documentación a presentar con la solicitud

Las personas solicitantes deberán presentar con la solicitud, además de la documentación establecida en la base sexta de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2026, la siguiente documentación:

- Declaración responsable de haber recibido otras ayudas a fecha de justificación.
- En su caso, copia de las resoluciones positivas de otorgamiento de otras ayudas concedidas por otros organismos a fecha de justificación.

El Ayuntamiento de Errenteria verificará, a través de la plataforma de intermediación NISAE, los siguientes datos para tomar parte en la convocatoria. En caso de oposición se deberá aportar las certificaciones o títulos exigidos en la convocatoria:

- Dirección General de la Policía – Consulta y verificación de datos de identidad.
- Tesorería General de la Seguridad Social - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social



- Gipuzkoako Foru-Ogasuna - Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta.

- Diputación Foral de Gipuzkoa - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias.

Dokumentazio teknikoa

Documentación técnica

- Erositako bizikleta elektrikoaren argazkiak, dirulaguntzaren baldintzak betetzen direla erakusten dutenak.

- Fotografías de la bicicleta eléctrica adquirida, donde se visualice también el cumplimiento de las condiciones de la subvención.

- Inbertsioa egiaztatzeko faktura xehea (jatorrizkoa, jatorrizko bikoiztua edo kopia konpultsatua). Onuradunaren izenean egon beharko du.

- Factura detallada (en original, original duplicado o copia compulsada) justificativa de la inversión, que deberá estar emitida a la persona que ostente la condición de beneficiario/a.

Fakturak zerrendatutako kontzeptu guztiekin aurkeztu behar dira, ordainketa-frogagiriarekin batera, eta ordainketaren agindu-emailea, onuraduna eta zenbatekoa jaso beharko ditu. Hori guztia urriaren 29ko 7/2012 Legearen 7. artikulua araberako ordainagiriarekin batera (7/2012 Legea, zerga- eta aurrekontu-araudia aldatzekoa eta iruzurraren aurkako prebentzioan eta borrokan jarduketak areagotzeko finantza-araudia egokitzekoa).

Las facturas deben ser presentadas con todos los conceptos relacionados, acompañadas del justificante de pago, el cual deberá en todo caso incluir el ordenante del pago, el beneficiario y el importe. Todo ello conforme al art. 7 de la Ley 7/2012, de 29 de octubre, de modificación de la normativa tributaria y presupuestaria y de adecuación de la normativa financiera para la intensificación de las actuaciones en la prevención y lucha contra el fraude.

Ordainketa geroratuak adosten badira, dokumentazio horren orde, jabearen sinatutako eta onartutako aurrekontua (eta enpresa kontratistaren eta jabearen artean adostutako eta sinatutako ordainketa-konpromiso geroratua erabil daitezke.

En caso de acuerdo de pagos aplazados, esta documentación puede ser sustituida por el presupuesto firmado y admitido por la propiedad y el compromiso de pago aplazado acordado y firmado entre la empresa contratista y la propiedad.

8.- Eskabideak aurkezteko epea

8.- Plazo de presentación de solicitudes

Dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epea irekiko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean eta bukatuko da 2026ko urriaren 31ean, edo aurretik aurrekontuetako partida agortuko balitz.

El plazo de presentación de las solicitudes de subvención estará abierto desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará el 31 de octubre del 2026, o previamente en el caso de agotamiento del importe de la previsión presupuestaria.

9.- Eskabideak baloratzeko irizpideak

9.- Criterios de valoración de las solicitudes



Eskabideak baloratzeko irizpideak hauek izango dira:

- Eskaera erregistroan aurkeztutako ordena zehatza.

- Dirulaguntzak ondoz ondoko lehia bidez esleitu dira (eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiak baietsiz, dagokion aurrekontu-partida agortu arte).

Eskabidea osatugabea, akatsekin egongo balitz, edo oinarri hauetan eskatzen dena bete ezik, hamar (10) eguneko ezin luzagarria den epea emango litzaioke interesdunari zuzentzeko edo eskatzen zaizkion dokumentuak aurkezteko, horretarako bidaliko zaion jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, eta hori egin ezean, eskabidea bertan behera utziko zaio, aurretiaz emango den ebazpen baten bidez.

Beraz, ez da beharrezkoa izango balorazio batzorderik sortzea. Eskaerak dirulaguntza emateko baldintzak betetzen dituela baloratzeko nahikoa izango da txosten tekniko bat.

10.- Ebazpena

Dirulaguntza emateko prozedura lehia edo konkurrentzia jarraitua izango da, eta, beraz, eskabideak aurkezten diren hurrenkeraren edo ordenaren arabera aztertu eta bideratuko dira espedienteak, eta modu egokian formulatuak eta beteak egongo diren heinean eta hurrenkeran bideratuko dira.

Los criterios de valoración de las solicitudes serán los siguientes:

- Orden riguroso de entrada de registro de la solicitud.

- Las subvenciones se adjudicarán mediante concurrencia sucesiva (estimando todas las solicitudes que cumplan los requisitos exigidos, hasta el agotamiento de la partida presupuestaria correspondiente).

Si la solicitud no reúne los requisitos exigidos por las presentes bases, estuviese incompleta, o fuera defectuosa, se requerirá a la persona interesada para que, en un plazo improrrogable de diez (10) días hábiles a contar desde la recepción de la notificación, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, mediante resolución.

Por tanto, no será necesario constituir una comisión de valoración. Será suficiente un informe técnico para valorar que la solicitud cumple los requisitos para que sea otorgada la subvención.

10.- Resolución

Las resoluciones de las solicitudes de ayuda se realizarán mediante un procedimiento de concurrencia sucesiva, de modo que las solicitudes se examinarán y tramitarán conforme al orden de presentación y se resolverán en la medida y en el orden en que queden correctamente formalizadas y completadas.



Ebazpenean honako hau azalduko da: (i) dirulaguntzaren xedea den jarduera, (ii) haren zenbatekoa (kantitate gordina, onuradunaren izaeraren ondoriozko zerga-betebeharrei utzi gabe), (iii) interesekoak izan daitezkeen beste alderdi batzuk eta (iv) eskabideari ezezkoa emanaz gero, haren arrazoiak.

11.- Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntzaren diru-kopuruak behin betiko ebazpenaren ondoren ordainduko dira, bertan zehaztutako epeen barruan.

12.- Inbertsioen egiaztatzea

Dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren, Udalak inbertsioen egiaztatze *in situ* egin ahal izango du, eta bertan instalazioari lotutako zenbait argazki adierazgarri egingo dira, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz. Nolanahi ere den, Udalak beharrezkotzat joko duen dokumentazio guztia eskatu ahal izango da; betiere, dirulaguntzen erabilera egoki egingo dela ziurtatu nahian.

Dirulaguntza jasotako jardueraren inbertsioen egiaztatze *in situ* egingo zaien onuradunei aldez aurretik idazki bat bidaliko zaie, haren berri emateko Udalaren aldetik. Jakinarazpena jasoko dutenek egiteko betebeharra izango dute.

En la resolución se indicará: (i) la actuación objeto de la ayuda, (ii) el importe de la misma (como cantidad bruta sin perjuicio de las obligaciones tributarias que procedan por razón de la naturaleza del beneficiario), (iii) aquellos otros aspectos juzgados de interés y (iv), en su caso, los motivos de denegación.

11.- Abono de la subvención

Los importes de subvención serán abonados tras la resolución de concesión definitiva en el plazo en el que se establezca en la misma.

12.- Comprobación de inversiones

Con posterioridad a la emisión de una resolución de otorgamiento de subvención y con el fin de verificar la efectiva ejecución de la actuación objeto de subvención, el Ayuntamiento podrá llevar a cabo la comprobación de inversiones *in situ*, pudiendo tomar fotos representativas de la bicicleta adquirida, así como solicitar toda aquella documentación adicional y no disponible en el expediente que se considere necesaria para el Ayuntamiento en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

Las personas beneficiarias para las que se estime necesaria la comprobación de inversiones *in situ* de la actuación objeto de subvención, recibirán comunicación previa por parte del Ayuntamiento, debiendo aquellos facilitar la misma.



Jakinarazpena bidali ondorengo bi asteren barruan, Udalak onuradunari inbertsioen egiaztatze teknika edo ekonomikoa *in situ* egingo duela jakinarazi ondoren, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz, ezin izango balitz ikuskapena egin, Udalarekin zerikusia ez duten arrazoiak tarteko, idatziz jakinaraziko zaio onuradunari hamabost (15) egun balioduneko epea izango duela beste hitzordu bat egiteko, inbertsioen egiaztatze *in situ* egin ahal izateko. Hori egin ezean, Udalak dirulaguntzaren zenbatekoa itzultzeko espedientea abiaraziko du.

Inbertsioen egiaztatzea *in situ* hartutako informazioa eskabidean aurkeztu den dokumentazioarekin kontrastatu ondoren, eta hasieran emandako dirulaguntza kantitatea txikiagoa izan behar dela, edo ez dagokiola dirulaguntzarik jasotzea ondorioztatuko balitz, kasuan-kasuan, Udalak dirulaguntza zati bat edo erabat itzultzeko espedientea hasiko du, zigorrak aplikatzeko eskubideari uko egin gabe.

Si una vez comunicada por el Ayuntamiento la comprobación de inversiones *in situ* prevista, dentro de las dos semanas siguientes a la comunicación, y por causas ajenas al Ayuntamiento ésta no pudiera realizarse, se notificará por escrito al beneficiario que dispone de quince (15) días hábiles para fijar una nueva fecha para facilitar la comprobación de inversiones *in situ*. En caso contrario, el Ayuntamiento procederá a la incoación de un expediente de reintegro del importe de la ayuda.

Una vez contrastada la información recogida durante la comprobación de inversiones *in situ*, si se concluyera que el importe de subvención inicialmente otorgado debiera ser inferior, o no procediese otorgar subvención, el Ayuntamiento procederá a incoar, respectivamente, un expediente de reintegro parcial o total de la ayuda, sin perjuicio de las sanciones que pudieran corresponder.

Ohar garrantzitsua: deialdi hau egin da Errenteriako Udalak 2026. urtean dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorrei jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

Nota importante: esta convocatoria deviene de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2026. En todo lo no especificado aquí, debe acudirse a aquellas.